



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAK

KALITATE POLITIKA

MISIOA: UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak zerbitzu publikoa emateko bokazioa du, eta profesionalak trebatu nahi ditu eta kultura arkitektonikoa bultzatu, pentsamendu askatasuna, berrikuntza, konpromiso soziala eta espiritu kritikoa ezaugarritzat dituen ingurune batean, bai eta euskara sustatu ere testuinguru eleaniztun batean.0}

Horretarako, giza talde kualifikatua du, baita irakaskuntza eta ikerketa azpiegitura egokiak ere. Sustatzen diren jardueren helburua arkitektura gizartean zabaltzea da, oro har.

IKUSPEGIA: Plan Estrategikoak hartzen duen aldia amaitu ondoren lortu nahi den helmuga definitzen du. Erronkak planteatu behar ditu, baina, aldi berean, neurgarria eta lorgarria izan behar du.

Eskolak lortu nahi dituen emaitzei erantzuten die, baita ikasleen artean, komunitate zientifikoan, langileen artean, gizartean eta unibertsitateko kideen artean izan nahi duen irudiari ere.

Ikastegiaren misioa eta AMIA analisisian jasotako ondorioak kontuan hartuta, zuzendaritza taldeak zazpi lerro nagusi definitu zituen ikuspegiari dagokionez.

UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak helburu hauek lortu nahi ditu 2021-2025 aldi estrategikoan:

- Ikasleen iritziz ikastegi bikaina izatea irakats eskaintzaren kalitateagatik, irakats esperientzia ona eskaintzeagatik, etengabeko ikaskuntza sustatzeagatik eta gizartearen beharretara egokitutako prestakuntza integrala emateagatik.
- Langileen iritziz langune egokia izatea, ahalik eta inplikazio eta konpromiso handiena lortuz haiengandik, eta aurrera egiteko aukera eskainiz langileei hala maila pertsonalean nola profesionalean.
- Unibertsitateko kideentzat erreferentziako ikastegia izatea kudeaketa aurreratuan eta bere jakintza arloekin lotutako gaietan.
- Enplegu emaileen artean ezaguna izatea irakaskuntzaren kalitateagatik, profesionalen prestakuntzagatik eta erreferentziako ikergunea izateagatik.
- Ezaguna izatea bere gizarte konpromisoagatik.

BALIOAK: Arkitektura Eskola misiotik abiatuta ikuspegira hel dadin, bere balioetan oinarritu behar du. Balio horiek erakundearen kudeaketa arautzen duten printzipio, ideia eta arauen multzoa dira, erakundearen filosofia eta antolaketa kulturaren euskarria osatzen dutenak. Balio partekatuek arau bat ezartzen dute, eta arau horretan oinarritzen dira zuzendaritza organoek, organo akademikoek edo administrazio organoek hartu beharreko erabakiak. Arkitektura Eskolak balio hauek partekatzen ditu:

- Zintotasuna eta gardentasuna kudeaketan, gure jarduera ondo egiteko funtsezko tresna gisa.
- Parte hartzea eta elkarriketa, talde lanaren eta erantzukizun partekatua bidez kolektiboki hobetzeko.
- Konpromisoa eta inplikazioa erakundearen garapenerako eta kide guztien gogobetetzea lortzeko.
- Erantzukizun eta lehiakortasun profesionalak, gure jarduera aurrera eramateko betebeharrei modu positiboan erantzuteko.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza, proiektuaren eta erakundearen aurrerapenean lagunduz.
- Ingurumenarekiko eta gizarte premiekiko sentsibilitatea eta erantzukizuna.



KALITATE HELBURUAK

Ikastegia kudeatzeko sistemako prozedurak eta prozesuak urtero berrikusten dira, urteko jarraipen eta kudeaketa txostenak egiten dira, eta Kalitate Batzordeak eta Ikastegiko Batzordeak onartzen ditu, zuzendaritza taldeak ontzat eman ondoren. Konpromiso horren erakusle dira lortu ditugun kalitatearen barne kudeaketarako sistemaren ziurtagiria eta akreditazio instituzionala, bai eta ikastegiari atxikitako ikasketen berritzea ere.

Ikastegiaren lehenengo plan estrategikoa (indarrean egongo dena 2021-2025 aldian) 2021eko otsailaren 24an onartu zen, eta hauek dira bere ardatz estrategikoak.

- 1.- Titulazioen garapena
- 2.- Kudeaketa administratiboa
- 3.- Baliabide materialak
- 4.- Giza baliabideak
- 5.- Ikasleekiko harremana
- 6.- Barne komunikazioa
- 7.- Kanpo komunikazioa eta gizartearekiko harremana.

2021-2025 aldirako Plan Estrategikoa onartu ondoren, bertan zehaztutako denbora planaren arabera eramaten dira aurrera Kalitate Politika eta Helburuak, urtero berrikusten direnak urteko kudeaketa eta jarraipen txostenean. Planaren aurkezpen fisikoa egin zitzaien Arkitektura Eskolako kideei ikastegiko Paraninfoan, eta dokumentua posta elektronikoz ere bidali zen. Arkitektura Eskolaren webgunearen bidez zabaltzen den dokumentu publikoa da. Kalitate politikaren hedapenean planteatutako helburuak plan estrategikoan definitutakoak dira, eta urtero berrikusten dira urteko jarraipen txostenean.

Kalitate Batzordeak onartua	Eskolako Batzarrak onartua
	
Sin.: Kalitate Batzordeko burua	Sin.: Arkitektura GETko zuzendaria
Data: 2023/xx/XX	Data: 2023/xx/XX

